tua ematea da. Honako talde eta ekintza-taldeetan banatu da:

1.– Talde Mugikorra. Zeregin espezifikoa honako da: arrisku larria dagoenean ordena publikoa bermatzea eta zaintzea, eta, hala badagokio, berrezartzea. Bere eginkizuna da Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako Ataleko taldeei laguntza ematea, eta, kasu batzuetan gainontzeko taldeei ere eman beharko die laguntza. Talde honi dagokio istripuetan, katastrofeetan eta hondamendi publikoetan eskuartzea.

2.– Helikoptero Taldea. Zeregin espezifikoa hauxe da: aurreikuspenerako, ikerketarako eta eskuhartzeetarako lanetan Herritarren Segurtasunerako Ataleko eta Krimen Gaietarako Ertzaintzaren talde eta zerbitzuei airetik laguntza ematea. Larrialdiei aurregiteko zerbitzuei laguntza emateko eginkizuna du.

3.– Lehergailuak Indargabetzeko Taldea. Honen zeregin espezifikoa lehergailuak indargabetu behar diren egoeretan eskuhartzea da.

4.– Ekintza Taldeen Unitatea. Unitate honen zeregin espezifikoa segurtasun-zerbitzuak ematea da. Arrisku arrazoiengatik edo interes berezia izateagatik zerbitzu hori behar duten pertsona, eraikin eta instalazioei emango zaie zerbitzu hori. Ertzaintzaren taldeei segurtasun handiko zerbitzuak eta bideo laguntza emateko eginkizuna du. Honako Ekintza Taldeetan banatuko da:

4.1.– Segurtasun Ekintza Taldea.
4.2.– Eskolten Ekintza Taldea.
4.3.– Eskuhartze Ekintza Taldea.
4.4.– Txakur Ekintza Taldea.

## INDUSTRIA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-4111

177/1997 DEKRETUA, uztailaren 22koa, nekazaritzako elikagaien arloko ikerketa zerbitzuaren kudeaketa «AZTI, A.B.» herri-sozietateari atxikitzen diona.

Euskal Herriaren osoko aurrerapen eta modernizazioan landa-inguruneak berebiziko garrantzia duela jakitun, Eusko Jaurlaritzak «Euskal Landa-Ingurunea garatzeko Jarduera-plana, 1997-2000» agiria onetsi du. Plan horren eginkizuna hau da: euskal herri-erakundeek eta euskal herritarrek euskal landa-ingurunean egiten dituzten jarduketak oro har orientatu, bideratu, zuzendu eta artikulatzea.

Aipatutako planaren eremuan, eta 1992-1996rako planak ezarri zituen helburuen haritik, Eusko Jaurlaritzak apustu egiten du «landa-ingurunearen ikusmolde integratu eta koherente baten alde, landa-ingurunearen

Ciudadana y de Policía de lo Criminal, estructurándose en las siguientes Unidades y Grupos Operacionales:

1.– Unidad de Brigada Móvil. Tiene como misión específica la prevención, mantenimiento y, en su caso, restablecimiento del orden público en situaciones de grave riesgo. También tiene como función permanente el apoyo a las Unidades de la División de Seguridad Ciudadana de la Ertzaintza, así como el apoyo puntual al resto de las Unidades. Le corresponde, asimismo, la intervención ante situaciones de accidentes, catástrofe o calamidad pública.

2.– Unidad de Helicópteros. Tiene como misión específica el facilitar apoyo aéreo a las Unidades y Servicios de las Divisiones de Seguridad Ciudadana y de Policía de lo Criminal, en tareas de prevención, investigación o intervención. Asimismo, tiene funciones de apoyo a los servicios de atención de emergencias.

3.– Unidad de Desactivación de Explosivos. Tiene como misión específica la intervención en todas aquellas situaciones que requieran la neutralización de sustancias o artefactos explosivos.

4.– Unidad de Grupos Operacionales. Con misiones específicas de prestar servicios de seguridad a personas, edificios e instalaciones que por su especial interés o riesgo lo requieran, y con funciones de cobertura de alta de seguridad a otras Unidades de la Ertzaintza y de apoyo cinológico a las mismas, se organiza en los siguientes Grupos Operacionales:

4.1.– Grupo Operacional de Seguridad.
4.2.– Grupo Operacional de Escoltas.
4.3.– Grupo Operacional de Intervención.
4.4.– Grupo Operacional Canino.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### N°-4111

DECRETO 177/1997, de 22 de julio , por el que se adscribe la gestión del servicio de investigación agroalimentaria a la sociedad pública «AZTI, A.B.»

Conscientes de la importancia del medio rural en el avance integral y la modernización del conjunto del País Vasco, el Gobierno Vasco ha aprobado el «Plan de Actuación para el Desarrollo del Medio Rural Vasco, 1997-2000» y que tiene como función orientar, canalizar, dirigir y articular, con carácter general, la actuación de las Instituciones Públicas Vascas, y los ciudadanos vascos, en el medio rural vasco.

En el ámbito de este Plan, y como continuidad en los propósitos que se marcó el Plan 1992-1996, el Gobierno Vasco apuesta por «una concepción integrada y coherente del espacio rural, que contemple su papel

funtzioaniztasunari eusteko, eta bertan kokatzen diren jarduerak arrazoizko garapen ekonomikorantz bideratzeko». Hala, bada, plan horretan Teknologia eta Enpresa Alorreko Modernizazio Programa aurreikusten da, eta programa horretara honako hau biltzen da: «Nekazaritzaren Ikerketa eta Hobekuntzarako Zerbitzua (CIMA-SIMA) eta AZTI, A.B. herri-sozietatea elkartzea Nekazaritza eta Arrantza ikertzeko Erakunde Publiko batean».

Irailaren 26ko 2756/1980 Errege Dekretu, abuztuaren 3ko 2241/1981 Errege Dekretu, uztailaren 24ko 2030/1981 Errege Dekretu, irailaren 26ko 2752/1980 Errege Dekretu eta 839/1985 Errege Dekretuaren bidez, Estatuaren zerbitzuak intsuldatu ziren ondoko alor hauetan: nekazaritzako ikerketa, ozeanografiako ikerketa, abere ekoizpen eta osasuna, landare osasuna, eta hazi eta mintegi landareen zerbitzua.

Bestetik, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen urtarrilaren 30eko 81/1995 Dekretuak Nekazaritza Sailordetzari atxikitzen dizkion jardun-arloen barruan dago nekazaritzako elikagaien eta natur ingurunearen arloko ikerketa, baita ikerketa horren plangintza, zuzendaritza eta koordinazioa ere. Era berean, eta aipatutako dekretuaren ondorioz, Natur Ingurunearen Antolamendu eta Ikerketa Zuzendaritzari dagokio nekazaritzako elikagaien eta ozeanografiaren ikerketara zuzendutako jarduerak bultzatzea; horrez gain zuzendaritza hori da Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitako AZTI, A.B. herri-sozietatearekiko harremanetarako organoa.

Bizkaiko Foru Aldundiak eratu zuen AZTI, A.B. sozietatea 1984ko azaroan; gerora, Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 24ko 132/1988 Dekretuaren bitartez eskuratu zen, sozietatearen jatorrizko helburuari eutsi eta elikagaien alorrera ere zabaldu zelarik.

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1989ko abenduaren 29ko erabakiaren bitartez, ozeanografiako ikerketa zerbitzua atxiki zitzaion AZTI, A.B. herri-sozietateari.

AZTI, A.B. herri-sozietatearen xedeen barruan daude, besteak beste, ondoko hauek: ur zientzien alorrean eta arrantza eta elikagaien teknologian ikerketa garatzea eta azterlanak egitea, Administrazioari eta arrantza zein nekazaritzako elikagaien alorretako industria erauzle eta eraldatzaileei aholkularitza ematea, eta teknologi zabalkunde eta prestakuntzako jarduerak.

Euskal Administrazioak nekazaritzako elikagaien sektoreko ikerketa garatzen du Nekazaritzaren Hobekuntzarako Ikertokien bidez (CIMA-SIMA), nekazaritzari eta bere erakundeei landare ekoizpen eta osasunaren eta abere ekoizpen eta osasunaren arloetako teknologia hobetzen laguntzeko helburuaren markoan.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sail honek beharrezkotzat hartu du nekazaritzako elikagaien alorreko ikerketan dihardduen egitura administratiboa egokitzea, teknologia eraberritzeko eskakizun berrietara moldatzeko, eta nekazaritzako elikagaiei buruzko ikerketaren

multifuncional y donde las actividades que se asienten en el mismo se orienten hacia el desarrollo económico sostenible». Así, en el Programa de Modernización Tecnológica y Empresarial que dicho Plan prevé, se incluye la formalización de «la convergencia del Servicio de Investigación y Mejora Agraria, (CIMA-SIMA) y la Sociedad Pública AZTI, A.B. en una Sociedad Pública de Investigación de Agraria y Pesquera».

Mediante Real Decreto 2756/1980 de 26 de septiembre, Real Decreto 2241/1981, de 3 de agosto, Real Decreto 2030/1981 de 24 de julio, Real Decreto 2752/1980, de 26 de septiembre y Real Decreto 839/85, fueron traspasados los servicios del Estado en materia de Investigación Agraria, Investigación Oceanográfica, Producción y Sanidad Animal, y Sanidad Vegetal y Servicio de Semillas y Plantas de Vivero, respectivamente.

La investigación agroalimentaria y del medio natural, así como su planificación, dirección y coordinación, entran dentro de las áreas de actuación atribuidas a la Viceconsejería de Agricultura, mediante Decreto 81/1995, de 30 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca. Asimismo, y en virtud del citado Decreto orgánico, corresponde a la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural la función de impulsar las actividades dirigidas a la investigación agroalimentaria y oceanográfica, además de ser éste el órgano de relación con la Sociedad Pública AZTI, A.B. adscrita al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

La Sociedad AZTI, A.B. fue constituida en noviembre de 1984 por la Diputación Foral de Bizkaia y adquirida mediante Decreto del Gobierno Vasco 132/1988, de 24 de mayo, manteniendo su objeto social y ampliándolo al campo alimentario.

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 29 de diciembre de 1989 se integra en la Sociedad Pública AZTI, A.B. el servicio de Investigación oceanográfica.

El objeto social de la Sociedad Pública AZTI, A.B. comprende, entre otros, el desarrollo de la investigación y la realización de estudios en el campo de las ciencias acuáticas y tecnología pesquera y alimentaria, así como el asesoramiento a la Administración y a las industrias extractivas y transformadoras, tanto pesqueras como agroalimentarias , y las actividades de formación y difusión tecnológica.

La Administración Vasca, a través de los Centros de Investigación y Mejora Agraria (CIMA-SIMA), desarrolla la investigación en el sector agroalimentario, en el marco de su objetivo de ayuda al sector agrario y a sus organizaciones para la mejora de su tecnología en las áreas de producción y sanidad vegetal y producción y sanidad animal.

Este Departamento de Industria, Agricultura y Pesca entiende necesaria una adaptación de la estructura administrativa dedicada a la investigación agroalimentaria a las nuevas exigencias de innovación tecnológica y al logro de los objetivos de mayor eficacia y rapidez

sustapena eta nekazaritzako elikagaien sektoreetan behar diren teknologien garapena eraginkorrago eta azkarragoa izan dadin.

Horretarako, aipatutako helburuak lortzeko, egokiagotzat hartu da erakunde bakarrak bete ditzan nekazaritza eta arrantzako ikerketa eta transferentzia teknologikoko eginkizun guztiak, nekazaritzako ikerketari buruz aritzean aipatu diren eginkizunak barne direlarik, eta horretarako, aipatutako zerbitzuak AZTI, A.B. herri-sozietateari atxikiko zaizkio, proposatu den legez.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko uztailaren 22an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Nekazaritzako elikagaien arloko ikerketa zerbitzuaren kudeaketari dagokionez, jarraian adierazten diren jarduerak atxikitzen zaizkio AZTI, A.B. herri-sozietateari:

a) Natur Ingurunearen Antolamendu eta Ikerketa Zuzendaritzak ikerketa, garapen eta transferentziarako (I+GT) onesten dituen proiektuak burutzea, horretarako ezartzen diren irizpideekin bat etorriz.

b) Aurreko idazatietan aipatutako ikerketa-proiektuetarako plan eta deialdi publikoetan parte hartzea, hala autonomi eremukoetan, nola Estatu edo Europa eremukoetan.

c) Behar den lankidetza lortzea eta/edo beste ikertoki batzuekin batera aritzea, baita nekazaritzako elikagai sektoreko beste erakunde batzuekin ere.

d) Laborategiko diagnostiko eta analisi probetarik, ikerketa eta garapen zein transferentziarekin loturikoak garatzea.

*2. atala.–* 1.– AZTI, A.B. herri-sozietateak atxiki zaizkion eginkizunak bete ditzan, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, inbentarioa egin ondoren, dekretu honen eranskinean zerrendatutako ondasun higiezinak eta zerbitzuari atxikitako ondasun higikorrak jarriko ditu aipaturiko herri-sozietatearen esku, berak erabil ditzan zerbitzuaren atxikipenak dirauen bitartean.

2.– Aipaturiko ondasunak AZTI, A.B.ren esku jartzeko, emate-akta egingo da, eta Sailaren zein herri-sozietatearen ordezkariak sinatuko dute. Edonola ere, horrek guztiak ez du esan nahi ondasun horien titulartasuna eta kalifikazio juridikoa ezertan aldatzen denik. Akta horrek ondasun guztien zerrenda zehatza jasoko du, eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin koordinaturik egingo da.

*3. atala.–* 1.– AZTI, A.B. herri-sozietatea behartuta dago, zerbitzuaren atxikipenak dirauen bitartean, 2.1. atalean aipatutako instalazioak egoera onean mantentzera, eta horretarako behar diren obra guztiak egitera.

2.– AZTI, A.B. herri-sozietateak behar bezala artatuko ditu 2.2. atalean aipatutako inbentarioan jasotzen

en el fomento de la investigación agroalimentaria y en el desarrollo de tecnologías precisas en los sectores agroalimentarios.

A tal efecto, se considerada como mas adecuado para la consecución de estos fines la prestación integrada de todas las actividades propias de la investigación y transferencia tecnológica agropesquera por una misma entidad, incluidas las relativas al ejercicio de las funciones de Investigación Agraria citadas, para lo cual se procede a realizar la adscripción propuesta en favor de la Sociedad Pública AZTI, A.B.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del 22 de julio de 1997,

DISPONGO

*Artículo 1.*– Se adscribe a la Sociedad Pública AZTI, A.B. las actividades de la gestión del servicio de investigación agroalimentaria que a continuación se relacionan:

a) Ejecutar los proyectos de investigación, desarrollo y transferencia (I+DT) aprobados por la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural y de conformidad con los criterios que se establezcan.

b) Participar en los planes y convocatorias públicas de carácter autonómico, estatal o europeo, de aquellos proyectos de investigación incluidos en el apartado anterior.

c) Recabar la colaboración necesaria y/o participar conjuntamente con otras unidades de investigación, así como con entidades propias del sector agroalimentario.

d) Desarrollar las pruebas de diagnóstico y analítica laboratorial ligadas a la actividad investigadora y a la de desarrollo y transferencia.

*Artículo 2.*– 1.– Para el desarrollo de las funciones que se le adscriben, el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, previa confección del correspondiente inventario, pondrá a disposición de la Sociedad Pública AZTI, A.B., para su utilización y hasta tanto dure la adscripción del servicio, los bienes inmuebles que se relacionan en el anexo del presente Decreto y los bienes muebles adscritos al servicio.

2.– La puesta a disposición no supone cambio de titularidad ni de calificación jurídica de los bienes que son su objeto y se formalizará mediante acta de entrega suscrita por el representante del Departamento y por el representante de la Sociedad. La referida acta contendrá relación detallada de los bienes y se elaborará en coordinación con la Dirección de Patrimonio y Contratación.

*Artículo 3.*– 1.– La Sociedad Pública AZTI, A.B. está obligada, mientas dure la adscripción del servicio, a mantener las instalaciones a que se refiere el artículo 2.1 a en perfectas condiciones y a realizar las obras que para ello sean necesarias.

2.– La Sociedad Pública AZTI, A.B. conservará adecuadamente los bienes y elementos que figuren en el

diren ondasun eta elementuak, eta berria jarriko du lehengoa galdu, hondatu edo zaharkiturik geldituz gero.

*4. atala.*– 1.– AZTI, A.B. herri-sozietateak ahalmena izango du atxiki zaizkion eginkizunak betetzeko behar diren instalazioak sustatu eta eraikitzeko, eta 2.1. atalean deskribatu eta egun dauden instalazioen egokitzapena sustatu eta burutzeko.

2.– Aipaturiko herri-sozietateak idatziko ditu obra-proiektuak eta 2. atalean aipaturiko instalazioen ekipamendurako hornidura-proiektuak. Proiektuok, gainera, Natur Ingurunearen Antolamendu eta Ikerketa Zuzendaritzaren onespena jaso behar dute.

3.– Publikotasun eta lehiaren printzipioen arabera, Estatuaren Kontratuari buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen xedapen gehigarrietariko seigarrenean ezartzen den legez, eta aplikatzekoa den legeria zibil eta merkataritzako legeriaren arabera egingo ditu kontratazioak AZTI, A.B. herri-sozietateak.

4.– Atal honen 1. lerroaldean aipatutako instalazioak egokitu, aldatu edo hobetzeko obrak Euskal Autonomi Elkartearen ondarera bilduko dira, Administrazio honen jabetzako ondasunetan egiten badira.

*5. atala.*– Dekretu honen bidez AZTI, A.B. herri-sozietateari egin behar zaion atxikipenaren ondorioz, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretuaren 44. atalean xedatutakoa aplikatuko zaie nekazaritzako elikagaien arloko ikerketa zerbitzuari atxikitako lan-itunpeko langileei.

*6. atala.*– Sozietateak eskuratu eta zerbitzurako beharrezkoak diren ondasun eta eskubideez baliatzeko egintzak edota ondasun eta eskubide horiek kargaren baten menpean jartzeko egintzak burutu ahal izateko, beharrezkoa izango da Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak aldez aurretik baimena eman dezan.

Sozietatearen titulartasunekoak izanik, zerbitzuari loturik dauden edo zerbitzua egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak zein diren zehazteko, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ondasun eta eskubide horien zerrendak onetsi ahal izango ditu, Sozietateari entzun ondoren. Zerrenda horiek aldatu ahal izango dira bilakaera teknologikoaren arabera.

*7. atala.*– 1.– Nekazaritzako elikagaien arloko ikerketa zerbitzuaren kudeaketa berez itzuliko da Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailera ondoko balizko hauetan:

a) AZTI, A.B. herri-sozietateak kiebra jo edo ordainketak etenez gero.

b) AZTI, A.B.ak Eusko Jaurlaritzaren herri-sozietatearen izaera galduz gero.

2.– Aurreko lerroaldean jasotako balizkoetarik edozein gauzatu eta nekazaritzako elikagaien arloko ikerketa zerbitzua Administrazioari itzuliz gero, ondorioak hauek izango dira:

inventario a que hace referencia el artículo 2.2, renovándolos en caso de pérdida, deterioro o cuando quedaren obsoletos.

*Artículo 4.*– 1.– La Sociedad Pública AZTI, A.B., podrá promover y construir las instalaciones necesarias para el desarrollo de las funciones encomendadas, así como promover y acometer la adecuación de las existentes y descritas en el artículo 2.1.

2.– Los proyectos de obras, y los de suministro de equipamiento de las instalaciones señaladas en el artículo 2 serán redactados por la mencionada Sociedad Pública gestora y serán objeto de aprobación por la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural.

3.– La Sociedad Pública AZTI, A.B. ajustará sus contrataciones a los principios de publicidad y concurrencia, conforme lo establece la Disposición Adicional sexta de la Ley 13/1995, de 18 de mayo, de Contrato del Estado, así como a la legislación civil y mercantil que le sea de aplicación.

4.– Las obras para la adecuación, modificación o mejora de instalaciones a que se refiere el párrafo 1 del presente artículo se integrarán en el patrimonio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuando se realicen sobre bienes de propiedad de esta Administración.

*Artículo 5.*– Como consecuencia de la adscripción que, conforme a este Decreto, se realiza en favor de la Sociedad Pública AZTI, A.B., al personal laboral adscrito al servicio de investigación agroalimentaria le será de aplicación lo dispuesto en el artículo 44 del Real Decreto 1/1995, de 24 de marzo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

*Artículo 6.*– Los actos de disposición y gravamen de los bienes y derechos adquiridos por la Sociedad y necesarios para el desenvolvimiento del servicio, requerirán la previa autorización del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

A efectos de la determinación de los bienes y derechos, de titularidad de la Sociedad, que se encuentren afectos o sean necesarios para el servicio, el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, previa audiencia de la Sociedad, podrá aprobar las relaciones de tales bienes y derechos. Dichas relaciones podrán ser modificadas en función de la evolución tecnológica.

*Artículo 7.*– 1.– Revertirá automáticamente al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca la totalidad del servicio de investigación agroalimentaria, en los siguientes supuestos:

a) Situación de quiebra o suspensión de pagos de la Sociedad Pública AZTI, A.B.

b) Pérdida de la condición de Sociedad Pública del Gobierno Vasco de AZTI, A.B.

2.– La reversión a la Administración del servicio de investigación agroalimentaria en los supuestos contemplados en el párrafo anterior producirá los siguientes efectos:

a) Sozietateari zerbitzuaren kudeaketarako eman zaizkion ondasunak berreskuratuko ditu Administrazioak, kontserbazio eta funtzionamendu egoera onean.

b) Dekretu honetan araututako atxikipenaren ondorioz AZTI, A.B. herri-sozietateari esleitzen zaizkion Administrazioko langileak, baldin nekazaritzako elikagaien arloko zerbitzuan jarraitzen badute zerbitzuaren itzulketa gauzatzen denean, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrera itzuliko dira indarreko lan-arauek ezartzen dituzten baldintzetan.

c) Sozietateak eskuratu eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ustez zerbitzua egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen jabetza eta titulartasuna Administrazioaren esku geratuko da, bidezkoak diren amortizazioak ordaindu eta gero.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau bete eta garatzeko xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Dekretu hau 1998ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko uztailaren 7an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

a) La recuperación de los bienes que hayan sido entregados a la Sociedad para la gestión de dicho servicio, en el estado de conservación y funcionamiento adecuados.

b) La reincorporación a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en las condiciones que establezca la normativa laboral en vigor, del personal laboral de la Administración que se incorporó a la Sociedad Pública AZTI, A.B. como consecuencia de la adscripción que realiza el presente Decreto y que siga prestando sus servicios en la investigación agroalimentaria.

c) La reversión de la propiedad y titularidad de aquellos bienes y derechos adquiridos por la Sociedad que el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca considere necesarios para el servicios, previo pago, en este último supuesto, de las amortizaciones pendientes.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día 1 de enero de 1998.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de julio de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## ERANSKINA

### ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

1.-KOKALEKUA: ARKAUTE-GASTEIZ

A.– ERAIKUNTZAK

| DESKRIPZIOA | ERAIKITAKO AZALERA OSOA (m.$^2$) | DESTINOA | TITULUA |
|---|---|---|---|
| Harlangaitzezko egitura | 10 | Transformadore elektrikoaren kokalekua | Lagapena |
| 2 solairuko eraikina | 310 | Laborategia eta bulegoak | Lagapena |
| Kristalezko egitura | 150 | Adosaturiko berotegia | Lagapena |
| Kristalezko egitura | 150 | Adosaturiko berotegia | Lagapena |
| 2 solairuko eraikina | 1.439 | Biltegiak, etxebizitzak eta bulegoak | Lagapena |
| 2 solairuko eraikina | 1.462 | Biltegiak, etxebizitzak eta bulegoak | Lagapena |
| 2 solairuko eraikina | 800 | Bulegoak | Lagapena |
| Alboko itxiturarik gabeko eraikina | 600 | Estalpea | Lagapena |
| Burdina, plastiko eta harlangaitzezko egitura | 305 | Artegia | Lagapena |
| Egurrezko eraikin aurrefabrikatua | 45 | Bulegoak eta ardietarako laborategia | Lagapena |
| Burdina eta plastikozko egitura | 350 | Artegia | Lagapena |
| 2 solairuko eraikina | 1.600 | Biltegiak, lantegiak eta etxebizitzak | Lagapena |
| 2 solairuko eraikina | 316 | Biltegiak eta lantegiak | Lagapena |
| Solairu 1 + 1-eko eraikina | 460 | Garajea, lantegia eta biltegia | Lagapena |

| DESKRIPZIOA | ERAIKITAKO AZALERA OSOA (m.²) | DESTINOA | TITULUA |
|---|---|---|---|
| Egurrezko egitura | 725 | Artegia, esnetegia, biltegia | Lagapena |
| Hormigoi eta kristalezko egitura | 300 | Berotegiak | Lagapena |
| Multitunelak eta laborategia | 7.000 | Berotegia, biltegia eta laborategia | Lagapena |
| Kristalezko egitura | 209 | Berotegia | Lagapena |
| Kristalezko egitura konpartimentuduna | 246 | Berotegi konpartimentuduna | Lagapena |
| Egur eta PVC-zko egitura | 150 | Baso berotegia | Lagapena |
| Metal eta ondulinezko egitura | 96 | Karramaro hazlekua | Lagapena |
| Egurrezko eraikin aurrefabrikatua | 81 | Baso berotegia | Lagapena |
| Solairu bat eta berotegi adosatua dituen eraik. | 299 | Laborategia eta berotegia | Lagapena |
| Solairu bateko eraikina | 197 | Laborategia eta biltegia | Lagapena |
| 4 solairuko eraikina | 1.118 | Bulegoak | Lagapena |
| Solairu bateko eraikina | 858 | Berotegia, laborategia eta biltegia | Lagapena |

B.– FINKAK

| AZALERA | DESTINOA | TITULUA |
|---|---|---|
| 74’69 ha | Laborantza | Lagapena |

2.– KOKALEKUA: ITURRIETA-AGURAIN

A.– ERAIKUNTZAK

| DESKRIPZIOA | ERAIKITAKO AZALERA OSOA (OSOA (m.²) | DESTINOA | TITULUA |
|---|---|---|---|
| Solairu 1 + 1-eko eraikina | 661 | Etxebizitzak eta eranskinak | Jabetza |
| Solairu bateko eraikina | 506 | Biltegia eta berotegiak | Jabetza |
| Solairu bateko eraikina | 341 | Biltegia eta garajea | Jabetza |
| 3 solairuko eraikina | 4335 | Biltegia eta etxebizitzak | Jabetza |
| Solairu bateko eraikina | 338 | Eliza | Jabetza |
| Solairu bateko eraikina | 180 | Lantegia eta garajea | Jabetza |

B.– FINKAK

| AZALERA | DESTINOA | TITULUA |
|---|---|---|
| 2’50 ha | Ikerketa | Jabetza |
| 50’50 | Laborantza | Lagapena |

3.– KOKALEKUA: SIMA-DERIO

A.– ERAIKUNTZAK

| DESKRIPZIOA | ERAIKITAKO AZALERA OSOA (m.²) | DESTINOA | TITULUA |
|---|---|---|---|
| Eraikina: 2 solairu + sotoa | 1.935 | Biltegia, bulegoak, laborategia | Lagapena |
| Eraikina: 2 solairu + sotoa + ganbara | 1.800 | Biltegia, bulegoak, laborategia | Lagapena |

# *ANEXO*

## *RELACIÓN DE BIENES INMUEBLES*

### *1.– LOCALIZACIÓN: ARKAUTE-VITORIA*

#### *A.– CONSTRUCCIONES*

| *DESCRIPCIÓN* | *SUPERFICIE TOTAL CONSTRUIDA (m.²)* | *DESTINO* | *TITULO* |
|---|---|---|---|
| *Estructura de Mampostería* | *10* | *Ubicación de transformador eléctrico* | *Cesión* |
| *Edificio de 2 plantas* | *310* | *Laboratorio y despachos* | *Cesión* |
| *Estructura Acristalada* | *150* | *Invernadero Adosado* | *Cesión* |
| *Estructura Acristalada* | *150* | *Invernadero Adosado* | *Cesión* |
| *Edificio de 2 plantas* | *1.439* | *Almacenes, Viviendas y Oficinas* | *Cesión* |
| *Edificio de 2 plantas* | *1.462* | *Almacenes, Viviendas y Oficinas* | *Cesión* |
| *Edificio de 2 plantas* | *800* | *Oficinas* | *Cesión* |
| *Edificio sin cierres laterales* | *600* | *Cobertizo* | *Cesión* |
| *Estructura de Hierro, Plástico y Mampostería* | *305* | *Establo ovino* | *Cesión* |
| *Edificio Prefabricado de Madera* | *45* | *Despachos y Laboratorio de Ovino* | *Cesión* |
| *Estructura de hierro y plástico* | *350* | *Establo de Ovino* | *Cesión* |
| *Edificio de 2 plantas* | *1.600* | *Almacenes, Talleres y Viviendas* | *Cesión* |
| *Edificio de 2 plantas* | *316* | *Almacenes y Talleres* | *Cesión* |
| *Edificio 1 + 1 planta* | *460* | *Garaje, Taller y Almacén* | *Cesión* |
| *Estructura de Madera* | *725* | *Establo de Ovejas, Lechería, Almacén* | *Cesión* |
| *Estructura de hormigón y cristal* | *300* | *Invernaderos* | *Cesión* |
| *Multitúneles y Laboratorio* | *7.000* | *Invernadero, Almacén y Laboratorio* | *Cesión* |
| *Estructura acristalada* | *209* | *Invernadero* | *Cesión* |
| *Estructura acristalada compartimentada* | *246* | *Invernadero Compartimentado* | *Cesión* |
| *Estructura de madera y PVC* | *150* | *Invernadero Forestal* | *Cesión* |
| *Estructura metálica y onduline* | *96* | *Cangrejera* | *Cesión* |
| *Edificio Prefabricado de Madera* | *81* | *Laboratorio Forestal* | *Cesión* |
| *Edificio de 1 Planta + Invernadero Adosado* | *299* | *Laboratorio e Invernadero* | *Cesión* |
| *Edificio de 1 planta* | *197* | *Laboratorio y Almacén* | *Cesión* |
| *Edificio de 4 plantas* | *1.118* | *Oficinas y Despachos* | *Cesión* |
| *Edificio 1 planta* | *858* | *invernadero, Laboratorio y Almacén* | *Cesión* |

#### *B.– FINCAS*

| *SUPERFICIE* | *DESTINO* | *TITULO* |
|---|---|---|
| *74'69 Ha* | *Cultivo* | *Cesión* |

### *2.– LOCALIZACIÓN: ITURRIETA-SALVATIERRA*

#### *A.– CONSTRUCCIONES*

| *DESCRIPCIÓN* | *SUPERFICIE TOTAL CONSTRUIDA (m.²)* | *DESTINO* | *TITULO* |
|---|---|---|---|
| *Edificio de 1 + 1 planta* | *661* | *Viviendas y anexos* | *Propiedad* |
| *Edificio de 1 planta* | *506* | *Almacén e invernaderos* | *Propiedad* |
| *Edificio 1 planta* | *341* | *Almacén y Garaje* | *Propiedad* |
| *Edificio 3 plantas* | *4335* | *Almacén y viviendas* | *Propiedad* |
| *Edificio 1 planta* | *338* | *Iglesia* | *Propiedad* |
| *Edificio 1 planta* | *180* | *Taller y garaje* | *Propiedad* |

*B.– FINCAS*

| *SUPERFICIE* | *DESTINO* | *TITULO* |
|---|---|---|
| *2'50 Ha* | *Investigación* | *Propiedad* |
| *50'50* | *Cultivo* | *Cesión* |

*3.– LOCALIZACIÓN: SIMA-DERIO*

*A.– CONSTRUCCIONES*

| *DESCRIPCIÓN* | *SUPERFICIE TOTAL CONSTRUIDA (m.²)* | *DESTINO* | *TITULO* |
|---|---|---|---|
| *Edificio 2 plantas + Sótano* | *1.935* | *Almacén, Oficinas, Laboratorio* | *Cesión* |
| *Edificio 2 plantas + Sótano + Planta Entrecubierta* | *1.800* | *Almacén, Oficinas, Laboratorio* | *Cesión* |

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

### Zk-4112

182/1997 DEKRETUA, uztailaren 22koa, titulu akademiko bat lortzeko ez diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten zentro pribatuetako erabiltzaileek duten informaziorako eskubidea arautzen duena.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak —Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 24.1. atala aldatzen du—, bere gehigarrizko xedapenetatik seigarrenean zehazten duenez, titulu akademiko bat lortzeko ez diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten zentro pribatuek Zuzenbidearen araberakoak izan beharko dute eta debekaturik izango dute ikastetxeetarako ezarritako izendapenak eta horiekiko nahasmena sortu edo errakuntzara bultza dezakeen izenik erabiltzea. Hori bera esaten du ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuaren 3. atalak, zeinek unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri baitzituen.

Hori guztiori kontutan hartuta, akademikoak ez diren tituluak ematen dituzten irakaskuntzako zentro pribatuek egun duten garrantziaz jabeturik, eta zentro horiek gero eta gehiago hedatzen ari direnez gero, beharrezkotzat jotzen da zentro horiek eman beharreko informazio mota arautzea, espezializazio profesional handiagoa eskatzen den garaian bizi gara-eta.

Kontsumitzailearen Estatutuari buruzko azaroaren 18ko 10/1981 Legearen 18. atalean ezartzen den prin-

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

### N°-4112

DECRETO 182/1997, de 22 de julio, por el que se regula el derecho a la información de los usuarios de centros privados que impartan enseñanzas no universitarias que no conduzcan a la obtención de un título con validez académica.

La Disposición Adicional Sexta de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, que modifica el artículo 24.1 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del derecho a la educación, determina la sujeción a las normas del derecho común de los centros privados que impartan enseñanzas que no conduzcan a la obtención de un título con validez académica, prohibiendo a dichos centros la utilización de denominaciones establecidas para centros docentes, ni cualesquiera otras que pudieran inducir a error o confusión con aquéllas. En el mismo sentido se pronuncia el artículo 3.º del Real Decreto 1004/1991, de 14 de junio, por el que se establecen los requisitos mínimos de los centros que impartan enseñanzas del régimen general no universitario.

Habida cuenta de cuanto se expresa y dada la importancia que actualmente tienen los Centros de Enseñanza Privados que expiden títulos no académicos y su difusión cada vez mayor entre los usuarios, en una época en la que se exige mayor especialización profesional, se estima necesario regular el tipo de información que dichos centros deben suministrar.

El presente decreto pretende garantizar la aplicación a este ámbito concreto del principio general establecido